



Alkandora
Camisa



Mahuka laburreko
kamiseta
Camiseta de manga corta




Bainujantzia
Traje de baño




Jertsea
Jersey

Pijama




Praka bakeroak
Pantalones vaqueros

Arropa-dendan ere euskaraz




Txanoa
Gorro



Gona
Falda



Kamiseta
tiranteduna
Camiseta de tirantes



Oinetakoak
Zapatos



Mantala
Bata



Zira eta eskularruak
Impermeable y guantes



Soinekoa
Vestido



Prakak
Pantalón

Euskara, aukera paregabea.

El euskera es una buena oportunidad.

Betaurrekoak
Gafas



“Nik Baditut” Abestia

Nik baditut zapatilak
emaztegaiak emanak.
Zapatilak txarol finak,
ebila eta kordonak,
emaztegaiak emanak.

Nik baditut galtzetinak
emaztegaiak emanak.
Galtzetinak hari finak,
zapatilak txarol finak,
ebila eta kordonak,
emaztegaiak emanak.

Nik baditut pantalonak
emaztegaiak emanak.
Pantalonak oihal finak,
galtzetinak hari finak,
zapatilak txarol finak,
ebila eta kordonak,
emaztegaiak emanak.

Nik badaukat gerrikoa...

Nik baditut alkandorak...

Nik baditut txalekuak
emaztegaiak emanak.
Txalekuak korte finak,
alkandorak tela finak,
gerrikoa seda fina,
pantalonak oihal finak,
galtzetinak hari finak,
zapatilak txarol finak,
ebila eta kordonak,
emaztegaiak emanak.

Oskorri
Doktor Do Re Mi eta Benedizebra



Galtzerdiak
Calcetines

INFORMAZIOA

Hizkuntza aholkularitza Getxoko saltokiei
Asesoría lingüística al comercio getxotarra
94 415 22 52 gehi@getxo.net

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera. Ayuntamiento de Getxo
94 466 00 10/11 euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net



Eskularruak
Guantes

Seme-alabekin ere euskaraz

Gurasoa: Egun on!

Umea: Egun on!

G: Jaikitzeke ordua da jada, eskolara joan behar duzu eta.
Zer jantziko duzu gaur?

U: Atzo erositako gona estreinatu gura dut.

G: Ondo da; baina, lehenengo, pijama erantzi behar duzu.
Eta soinean, zer jantziko duzu, kamiseta tiranteduna ala
mahuka laburreko kamiseta?

U: Tiranteduna.

G: Ados. Baina, badaezpada, jertsea ere eroan ezazu, gaur
hoztu egingo du eta.

U: Bai? Orduan hanketan ere zerbait jantzi beharko dut.

G: Bada, galtzak aterako dizkizut; eta, sandaliak beharrean,
zapatak eroango dituzu, bai?

U: Bai.

G: Eta gogoratu bizkar-zorroan eskolarako mantala sartu
behar duzula!

U: Egia da!

G: Gaur eguzkia irten da, eta berotu egiten du;
hondartzara joango al gara?

U: Ederto!

G: Orduan, bainujantzia hartuko dugu.

U: Ni, bitartean, txankleten bila joango naiz.

G: Ondo da. Txanoa ere jantzi beharko dugu, eguzkiak
gogor joko duelako.

U: Bainujantzia jantzi dut jada. Bagoaz?

G: Zaude apur batean. Ezin gara etxetik horrela irten!
Elastikoa ere jantzi ezazu, hondartzara heldu arte.


U: Ados.

Hiztegia

Berokia	Abrigo
Txalekoa	Chaleco
Txandala	Chándal
Kirol-jertsea	Sudadera
Elastikoa	Camiseta
Tapauka	Bufanda
Galtzerdia	Calcetín
Galtzak	Medias
Sandaliak	Sandalias
Botak	Botas
Barruko arropa	Ropa interior
Kirol-oinetakoak	Playeras
Txankletak	Chancletas
Aterkia / Euritakoa	Paraguas



Botak
Botas



Barruko arropa
Ropa interior

Barruko arropa
Ropa interior

Euskaraz atseginez En euskera amablemente

Gura badozu, euskaraz ere bai
Si quieres, también en euskera.

**Astiro, mesedez, ikasten ari
naiz eta**

Despacio, por favor, estoy aprendiendo.

Euskaraz bai, baina astiro, mesedez
En euskera sí, pero despacio, por favor.

Arropa-dendan ere euskaraz

Dendaria: Kaixo!

Gurasoa: Kaixo! Umearentzako
neguko arropa erostera nator. Zer
daukazue?

D: Momentu honetan, zira eta
eskularruak dira gehien saltzen
gabiltzana.

G: Bai, horiek ezinbestekoak ditu
hotzik ez izateko Baina, agian, burua
eta eztarria estaltzeko zerbait gehiago
beharko luke.

D: Bai, arrazoi duzu. Horretarako,
txanoa eta tapauka gomendatzen
dizkizut.

G: Erakutsiko didazu nolakoak diren,
mesedez?

D: Jakina! Zenbat urte ditu zure
umeak? Hala, berarentzat aproposenak
diren arropak erakutsiko dizkizut.

G: Sei urte dauzka.

D: Ondo da. Orduan, hauexek dira
bere neurrikoak.

G: Bada, uste dut lau arropak erosiko
ditudala. Kobratuko didazu, mesedez?

D: Bai, oraintxe bertan.

Eskatu eta
erosi euskaraz